



ADMINISTRAZIO zibileko testu historikoak

[Imanol Trebiño, ed.]. - Oñati : Instituto Vasco de Administración Pública = Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea, 2001. - 772 or. - ISBN: 84-7777-230-4.

1. **Lanaren iturburua eta aurreko bilketak.** Lan honen jatorria 1994an, Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko Euskara Batzordeak Euskarazko testu administratibo historikoak datu-base batean biltzeko bideratu zuen egitasmoan dago. Zuzenbide Fakultatearen laguntzaz hasi eta ondoren, Imanol Trebiñok, hainbat erakunderen babesa izan du lan hau burutu ahal izateko, hala nola, Eusko Ikaskuntzaren eta Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea (HAEE), zeina lanaren argitaratzaile izan baitzen.

Administrazio Zibileko testu historikoen bilduma hau ez da, ordea, lehena. Aurretik etorri ziren Gotzon Egia Goienetxearen “Noiz sentituko dira merak gure alka-tea? Euskal administrazio izkribu zahar batzuk?” (Senez, 1991, VII, 79-104 orr.), eta baita, Deustuko Euskara Juridikoaren Mintegiak landutako *Euskara, zuzenbidearen hiz-ker*a (Deustu: Deustuko Unibertsitatea, 1995) liburuan jasotako zenbait eredu. Biltze lan horri gehitu beharko genioke halaber, HAEEk, *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa* –1936ko urritik 1937ko ekainera, kaleratu zena–, biltzeko eta euskarri informatikora ekartzeko egindako ahalegina eta baita, EIZIEk sortutako datu-basea egungo testu administratiboak jasotzen dituen. Biltze lan sistematiko horiez gain, izan dira beste lan batzuk, agiri solteak ezagutzera eman dituztenak.

Baina, dudarik gabe, orain arteko arakatze eta biltze ahaleginik haundiena Imanol Trebiñoren eskutik heldu zaigun hauxe da.

2. **Iturriak eta corpus-a.** Autoreak jasotako dokumentu hauetarik ezagunak ziren asko –han hemenka aldizkari espezialduetan barreiatuak gehienak–; beste batzuk berriz, bildumaren autoreak aurkituak dira, lehen aldiz, liburuki honetan argitaratzen direnak.

Imanol Trebiñok berak adierazten duenez, dokumentu argitara gabeen bilketa lanaren zailtasunik haundienak bi lekutatik etorri dira. Alde batetik, zenbait artxiboren antolaketa falta –Ipar Euskal Herriko herrietako artxiboak kasu–, eta bestetik, horietako testu batzuk esku pribatuetan daudelako –1616. urte inguruan Zuberoako agintarien eta Erronkariko alkatearen arteko korrespondentzia, esate baterako–.

Bilketa lana, beraz, ez dago erabat itxia. Dudarik ez, zaila izango da, dagoeneko argitaratua eta katalogatua ez dagoen dokumentu nagusiren bat aurkitzea, baina, oraindik orain agertuko dira zenbait testu berri administrazio zibilari lotutakoak, bigarren mailakoak badira ere.

Esan bezala, testu administratibo historikoak biltzea zen lanaren helburua. Horretarako, autoreak, testu administratibo historikoak zein diren mugatu behar izan du lehenik. Bildu beharreko *corpus*aren mugak finkatzerakoan kanpoan geratu dira, irizpide egokiz, elizaren eta administrazio militararen testuak –zeinak aparteko traterara merezi duten– eta *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoak* geroztik sortutakoak; azken horiekin hasten baita, hain zuzen ere, euskarazko testu administratiboen ekoizpen sistematikoa.

Jasotzen den dokumentu zaharrena 1415ekoa da, Nafarroako zerga bilketa administrazioak bidaltzen dituen zenbait gutunek osatua; badira hirurogei gutun inguru Frantzia eta Espainia arteko mugako herrien artean trukatuak, fazeria izenez ezagutzen direnak, 1616koa zaharrena eta 1907koa azkena; zenbait udal ordenantza: 1754ko Eibarko Udalarena eta XIX. mendeko beste bost; Iraultza frantsesaz geroztik udal gobernua osatzeko modu berriari buruzko Dekretuaren itzulpenak; Ahetzeko udalaren aktak, 1792 urtetik 1798ra bitartekoak; eta garai berean Hego Euskal Herriko zenbait herrietako bandoak –1705 urtean tertzioetako desertoreei Arrasateko herriak zuzentzen diena, adibidez–; Nafarroa Behereko Biltzar Nagusiek 1756 urtean egiten duten donazio baten akta eta Bizkaiko Batzar Nagusietako hitzaldiak eta dokumentuak, 1846 eta 1872 bitartekoak; XIX. mendearen erdialdetik aurrera, Antton Abbadieren ekimenez, udalek antolatzen dituzten euskal jaien bando mordoak agertzen da Ipar eta Hego Euskal Herrietan; XX. mendean aipatzekoak dira, azkenik, Gerra Zibil aurreko Bera herriko bandoak eta Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundiek, 1917 eta 1920 urte bitartean, herriei bidalitako zirkular mordoak.

3. **Bildumaren egitura.** Irizpide zuzenez, bilduma honetan dokumentuak erreproduzitu egiten dira –inprenta bitartez argitara eman ziren testuak transkribatu egiten dira eta aurrekoak berriz, faksimil modura jasotzen dira–.

Testuak kronologikoki ordenatuak daude, eta testu multzoak “kapitulutan” jasotzen dira. Dokumentu batzuk kapituluka biltzearen arrazoia ei da, autoreak mota bereko testu sortei buruzko azalpen orokorrak eman ahal izatea.

Kapitulu bakoitzaren aitzinean esaten zaigu erreproduzitutako testua noiz idatzi zen, non –eta hala badagokio nori zuzendua zegoen–, agiriaren izaera dokumentala –korrespondentzia, bandoa, akta, ordenantza, dekretua, edo bestelako dokumentua den–, eta zertaz ari den. Jatorrizko dokumentuaren kokapena ere ematen zaigu –testua kausitu den artxiboa nahiz publikazioaren erreferentziak–. Hainbat dokumentutan, erreferentziaz gain, testuinguru historikoari buruzko eta dokumentuaren izaeraren gaineko argitasunak ere eskeintzen dira. Kapitulu bakoitzaren bukaeran, autoreak kontsultatu dituen obren erreferentzi bibliografikoa egiten da.

Aurkibideak hiru dira: gaikakoa, dokumentuetan jasotako pertsona izenena eta toponomastikoa.

Obra honek ez ditu beraz ohiko edizio kritikoen kanonak jarraitzen, non jatorrizko testuen erreproduzioaz gain horien gaineko azalpenak eta oharrak jasotzen baitiren orri oinean. Izan ere, edizio kritiko konbentzionala zatekeen bilduma hau argitara emateko beste aukera bat, testu bakoitza –jatorrizko dokumentua eta transkripzioa– unitate bat kontsideratuz eta ordenatzeko irizpide kronologikoa erabiliz, nahiz gaikakoa edo dokumentua sortu duen administrazio motaren arabera.

Bestalde, hitzaurrean, bilduma osatzeko irizpideez eta metodologiak gain, gehi zitekeen agian, bildutakoaren balorazio kritiko orokor bat; besterik ez bada, euskarazko testu administratibo historikoen produkzioaren gaineko tendentziak zein izan diren

azaltzeko eta testu horien iturri eta garai historikoei buruzko azalpen orokorrak emateko. Ordea, jakin badakigu, bildutakoaren balorazio kritikoa beste nonbait argitara emateko asmoa duela autoreak (Imanol TREBIÑO, “Administrazio zibilean euskaraz sortutako dokumentazio historikoa: konklusioak eta agiri gehiago”, *Eleria* 10).

Faltan hartzen da, bestalde, dokumentuen iturrien indize bat.

4. **Ondorioak.** Behin bilduma begi aurrean daukagula –nahiz eta, aurrerago azalduko dugunez, zenbait testu bakan kanpoan geratu direla esan beharra dagoen–, zenba ditzakegu azkenik historian zehar ekoiztu diren administrazio zibileko euskarazko testuak: hirurehun bat dokumentu, guztira.

Hori da beraz, eta ez besterik, euskararen tradizioak bigarren Errepublika arte eman duen testu administratiboen produkzioa.

Jakina zen gure hizkuntzaren tradizio juridiko-publiko idatzia eskasa izan dela, tradizio juridiko-pribatuaren antzera. Izan ere, pentsa litekeena da, euskarak bere lekua izan zuela Zuzenbidearen alorrean, udal administrazioan eta pribatuen arteko hartu emanetan batez ere, ahozko paremiologia juridikoa aberatsa sortuz. Ordea, erabakiak idazterako orduan latinera nahiz beste hizkuntza erromantzeetara jotzen zen. Izan ere, idazteko orduan ezerk ez baitzuen euskararen alde egiten (Koldo MITXELENA, *Historia de la literatura vasca*, Donostia: Erein, 2001, 14 orr.). Batetik hizkuntza kulta eta inguruko herrien eredia latina eta, gerora, erromantzea izan ziren eta, horretaz gain, Euskal Herrian agintedun klaseak elebidunak izan dira Historian zehar.

Zuzenbidearen alorrari gagozkiola, ez dago ahazterik euskararen kaltetan jokatu zuen beste faktore bat, Europa kontinentaleko herrietako kontzeptu juridikoen bateratasuna, alegia. Guganaino heldu den batasun horren arrazoia, Goi Ertaroan hasi eta hurrengo sei mendeetan zehar sistema juridiko kontinentaletara zabaldu zen Zuzenbide Erromatarra dugu. Sei mendez latinez landuko dira European Zuzenbide erudito horren kontzeptuak eta Kontinenteko Unibertsitate sortu berrietan irakatsi egingo dira. Terminologia horrek Zuzenbidearen burubide uniforme bat zuen oinarri: garaiko legistek Zuzenbide erromatarra interpretatuz eraiki zuten sistemarena.

Guzti horrek eragin zuen Europa Kontinentaleko herrietan, neurri batean edo bestean berezko erakunde juridikoak gorde izanagatik ere (Errezepeziozko Zuzenbideak ez baitzuen herri guztietan harrera bera izan), halako hizkuntza juridiko amankomuneko bat erabiltzea, hizkuntza autoktonoetan, dudarik gabe, erabiltzen zen hizkera juridikoaren kaltetan, euskarari gertatu legez.

Bildumara itzuliz, aipagarri da testu gehienak administrazio lokaleko testu solteak direla –puntualki, helburua iristeko efikazago jotzen zuelako delako administrazioak euskara jotzea–. Agertzen diren testu segidak edo serieak salbuespenezkoak izanik ere, interesgarrienak ere badira; nola halako “tradiziotxo” idatzi bat izan zitekeenaren itxura hartzen dutelako.

Testu segida horiek honokoak dira (ikus, Imanol TREBIÑO, *Historia de la literatura vasca...*, *op. cit.*):

(a) Fazeriak. Hauek dira euskarazko dokumentu administratibo historikoen iturri nagusia –berrogeitik gora agertu dira–. Fazeria izenez ezagutzen dira, herri mugakideen arteko akordio edo kontratuak. Bake akordioak izateaz gain, herri biren lurrak edo mugak zehaztu eta larreen, uren eta basoen erabilera arautzen zuten, herriek horrela

hitzartuta. Hamaseigarren mendean, Frantzia eta Espainiako Estatuak sortzen direnean, herri mugakideak lehengo paktuak mantentzen ahalegintzen dira eta egoera berri-
ra egokitzen. Ohitura hori gaur arte gorde da. Batez ere ganaduarentzako larreez dihardute.

Sara eta Baztan dira halako dokumentuetan emankorrenak eta elkarren artean trukaturakoak dira dokumentu zaharrenak. Beti ere erdarazkoak baino askoz gutxiago dira eta inportantzia juridikoaren aldetik euskaraz idatzitakoak apalagoak dira.

(b) 1789ko Iraultzaz geroztik udal gobernu osatzeko modu berriari buruzko Dekretuaren itzulpenak. Iraultza frantsesaren garaian bat-batean testu andana agertuko da frantsesarekin batera euskara erabiltzen dutenak. Hasera batean herria bereganatzeko asmoz, iraultzaileek hizkuntza guztiak erabiltzeko aukera egin zuten. 1790eko urtarrilaren 14ko Asanblada Nazionalaren dekretu batek testu ofizialak itzultzeko agindua ematen zuen Frantziako hizkuntza guztietara –hogei bat inguru, euskara, bretoaia, katalana, italiara, alemana, eta frantsesaren aldaera ziren hainbat beste hizkuntza–. Gero, berriz, iritzia aldatu eta frantseza hizkuntza bakar eta ofizial kontsideratu zuten, beste guztiak alboratuz. 1792ko azaroan gauzak aldatu egin ziren, eta hizkuntza batzea erabaki zuten nazioaren batasuna indartzeko bide gisa.

(c) Bizkaiko Batzar Nagusietako Aktak, bi gerra karlisten arteko eta 1917 eta 1918 urte bitartekoak. Bigarren gerra karlista aurretik korrejidoarearen hitzaldiak itzul-
tzeari ekin zion Jose Antonio Uriarte idazle ezagunak, eta horiek dira, hain zuzen, Diputazioak aktetan jaso zituenak.

Batzar Nagusiak desegin zirenean, Bigarren gerra karlista ondoren, 1917ra arte ez da euskal testurik agertzen. Izan ere, urte horretan bertan Eusko Alderdi Jeltzaleak Aldundietarako hauteskundeak irabazi baitzituen eta jarrera politiko aktiboa hartu zuten euskararen alde.

(d) Gipuzkoako Aldundiak 1918az geroztik herriei bidalitako zirkularrak. Gipuzkoako Diputazioaren Komisio Probintzialak, Bizkaikoari jarraiki, berrogei bat testu kaleratu zituen euskaraz, herriei bidalitako zirkularrak guztiak.

(e) Abbadiaren euskal festen ohiartzun diren udal ospakizun ofizialetako programak Urruñako Udalarena, 1851koa, izan zen lehena, eta haren atzetik etorri ziren, Gipuzkoako beste udal askok ele bietan kaleraturikoak.

5. **Etorkizuneko fruituak.** Bilduma, dudarik ez, irekia da: autoreak berak nahiz beste batzuek gizenduko dute lan hau, pixkana agertzen joango diren testu apurrekin. Inportanteena, ordea, dagoeneko “aurkitua” dago, eta Imanol Trebiñoren ahalegin bikainari esker txukun eta modu erabilgarri batean argitara emana.

Lan honek ekarriko ditu bere fruituak. Hizkuntzalariek eta historialariek badute bertan zer ikertu. Hustuketa terminologikoa, esaterako, egiteko dago oraindik. Zer ekar dezakegu egunegun sortzen ari garen euskara juriko honetara Imanol Trebiñok eskuzabaltasunez eskeini digun “altxor” honetatik?

Itziar Alkorta Idiakez